



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alkateak, 2026ko apirilaren 28ko, 2026/488 zenbakidun dekretuaren bidez, 2026. urteko irabazi-asmorik gabeko Azkoitiko udalerriko kultur elkarteek eta kulturgileek ohiko egitasmo eta jarduerak antolatzeko dirulaguntzen deialdiko oinarri orokorrak onartu ditu.

La alcaldesa mediante decreto número 2026/488 del día 28 de abril de 2026 ha aprobado las bases generales de la convocatoria de las subvenciones del año 2026 para agentes y asociaciones culturales sin ánimo de lucro del municipio de Azkoitia para llevar a cabo los proyectos y las actividades ordinarias a lo largo del año o curso.

Oinarri orokorren testu osoa argitaratzen da eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek dirulaguntzak jasotzeko eskabideak eta beharrezko agiri guztiak aurkeztuko dituzte.

Se publica el texto íntegro de las bases generales y a partir del día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, las personas interesadas presentarán las solicitudes para la obtención de las ayudas económicas junto con toda la documentación necesaria.

— Erabakiaren aurkako errekurtsok:

—Recursos contra el acuerdo:

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio-bidea amaitzen du.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Horren aurka, aukerako berraztertze errekurtsok edo administrazioarekiko auzi-errekurtsok jar daitezke.

Contra el mismo podrá interponerse recurso potestativo de reposición o recurso contencioso-administrativo.

a) Auzitegietara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi badu, berraztertze errekurtsok jarri ahal izango du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

a) Antes de acudir a los tribunales, el solicitante podrá, si así lo desea, interponer recurso de reposición de conformidad con lo establecido en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Epea: Hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Plazo: Un mes, a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

Non: Alkatetzaren aurrean.

Dónde: Ante la Alcaldía.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsok jarri ahal izango du zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

b) En otro caso, podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo en los términos previstos en los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

Epea: bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Plazo: Dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

Tokia: Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Dónde: Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia.

c) Berraztertze errekurtsokaren ebazpenari errekurtsok jartzeko:

c) Para recurrir la resolución del recurso de reposición:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Epea: bi hilabete, berraztertzeko errekursoaren ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Aitzitik, Administrazioak berraztertzeko errekursoari erantzuten ez badio, interesdunak edozein unetan jarri ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtoa, bere araudi espezifikoaren arabera ustezko ekintza gertatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tokia: Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Plazo: Dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación de la resolución del recurso de reposición.

Si, por el contrario, la Administración no contestase al recurso de reposición, el interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo en cualquier momento a partir del día siguiente a aquel en que se produzca la acción presunta conforme a su normativa específica.

Dónde: Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia

IRAGARKIA	ANUNCIO
1. Dirulaguntzaren xedea.	1. Objeto de la subvención.
Irabazi-asmorik gabeko Azkoitiko udalerriko kultur elkarten eta kulturgileentzako dirulaguntzak emateko oinarriak arautzea da, urtean zehar edo ikasturtean ohiko egitasmo eta jarduerak burutzeko.	Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las bases para la concesión de subvenciones a agentes y asociaciones culturales sin ánimo de lucro del municipio de Azkoitia para llevar a cabo los proyectos y las actividades ordinarias a lo largo del año o curso.
2. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta partida	2. Importe y partida de la subvención.
Dirulaguntzen zenbateko osoak ez du gaindituko aipatutako xederako diru izendapena; hau da, 27.000 euro.	El importe total de las subvenciones no superará la consignación destinada a la citada finalidad; es decir, 27.000 euros.
Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: Kultur Elkarteei dirulaguntzak - 1 3100.481.334.00.01 2026	El gasto se hará con cargo a la siguiente partida presupuestaria: Subvenciones a asociaciones culturales 1 3100.481.334.00.01 2026
Kontuan hartuta, Azkoitiko Udalak kultur ekintzetara bideratzen dituen deialdi bidezko dirulaguntzak bi lerrotan banatzen direla (2026PUNTO006 eta 2025PUNTO007), eta guztiak goian aipatutako aurrekontu-partida beraren bidez finantzatzen direla, dirulaguntza lerro bateko deialdian aurreikusitako gastua baino zenbateko txikiagoko laguntza-eskabideak badaude edo dirulaguntza guztia ez ematea ebatzi badu organo eskudunak, erabili gabeko kopuru horren zenbatekoarekin dirulaguntza lerro baten zuzkidura handitzea erabaki dezake ebazteko gaitasuna duen organo eskudunak. Kasu hauetan, ez da beharrezkoa izango deialdi berria egitea, eta	Teniendo en cuenta que las subvenciones que el Ayuntamiento de Azkoitia destina a actividades culturales se dividen en dos líneas (2026PUNTO006 eta 2025PUNTO007), y todas ellas están financiadas a través de la citada partida presupuestaria en la materia, si existen solicitudes de subvención por importe inferior al gasto previsto en la convocatoria de una línea subvencional o si el órgano competente ha resuelto no conceder la totalidad de la subvención, el órgano competente para resolver podrá acordar un incremento de la dotación de una línea subvencional por el importe de dicha cantidad no utilizada. En estos casos no será necesaria una nueva convocatoria y la modificación se publicará en la plataforma BDNS.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BDNS plataforman argitaratuko da aldaketa. Nolanahi ere, aurrekontu-partidaren zenbateko osoa ezingo da gainditu; hau da, 50.000 euro.	En todo caso, el importe total de la partida presupuestaria no podrá superar los 50.000 euros.
3. Irizpide orokorrak.	3. Criterios generales.
Kultur elkarten eta kulturgileen programak eta jarduerak bat egin behar dute Azkoitiko Udalaren helburu orokorrekin eta kultur programen helburuekin. Dirulaguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa da. Berau emateak ez dio Udalari inolako derrigortasunik ekarriko hurrengo deialdiei begira. Dirulaguntza hauek beste batzuekin batera daitezke; horrela bada, adierazi egin beharko da jarduera bererako bestelako dirulaguntzak eskatu direla.	El programa y las actividades de las asociaciones culturales y de los agentes culturales deben coincidir con los objetivos generales del Ayuntamiento de Azkoitia y con los objetivos de los programas culturales. La subvención es voluntaria y provisional. Su concesión no supondrá ninguna obligatoriedad para el Ayuntamiento de cara a las próximas convocatorias. Estas subvenciones son compatibles con otras, en cuyo caso deberá indicarse que se han solicitado otras subvenciones para la misma actividad.
4. Eskatzaileak.	4. Solicitantes.
Dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte: <ul style="list-style-type: none">• Legez eraturako erakunde, elkarte eta taldeak.• Kultur edo aisialdi jarduerak burutzen dituzten norbanakoak edo helburu bererako elkartutako pertsona taldeak Deialditik kanpo geratuko dira Azkoitiko Udalarekin kontratuz edo hitzarmen bidez ekarpen ekonomikoak jasotzen dituzten jarduerak.	Podrán solicitar subvenciones: <ul style="list-style-type: none">• Organizaciones, asociaciones y agrupaciones legalmente constituidas.• Personas o grupos de personas asociadas para el mismo fin que llevan a cabo actividades culturales o de ocio. Quedarán excluidas de la convocatoria las actividades que reciban aportaciones económicas por contrato o convenio con el Ayuntamiento de Azkoitia.
5. Eskaren aurkezpena.	5. Presentación de solicitudes.
Eskarak aurkezteko deialdia irekia izango da, eta hilabeteko epea egongo da eskaerak aurkezteko, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Honako agiriak aurkeztu beharko dira: a) Dirulaguntza lehendabiziko aldiz eskatzen dutenak. <ul style="list-style-type: none">• Eusko Jaurlaritzako elkarte edo erakundeen erregistroan zein elkarten Udal-erregistroan errolatuta daudeneko ziurtagiria.	La convocatoria para la presentación de solicitudes será abierta, y se concederá un plazo de un mes para la presentación de solicitudes desde la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Se deberá aportar la siguiente documentación: a) Solicitantes de la subvención por primera vez. <ul style="list-style-type: none">• Certificado de inscripción en el registro de asociaciones o entidades del Gobierno Vasco o en el registro municipal de asociaciones.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<ul style="list-style-type: none">• Eskatzaileak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria• Elkartearen Curriculum-Vitae: orain arte burututako jarduerak, helburuak, giza eta material baliabideak, etab.. <p>b) Eskaera egiten duten guztiek:</p> <ul style="list-style-type: none">• Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.• Eskatzaileari buruzko txosten laburra, oinarri hauetako zazpigarren ataleko puntuari zehaztutakoa jasoko duena.• Urteko jarduera-egitasmoa: Jarduerak egiteko epeak eta datak, metodologia, helburuak, zein biztanle-talderentzako pentsatu den, etab.• Urteko edo ikasturteko aurrekontua, aurreikusten diren gastu eta diru-sarrerak argi zehaztuz.• Zinpeko aitortpena; non beste batzorde, erakunde, organismo, eta abarrei egindako dirulaguntzen eskaerak jasoko diren, edo, hala badagokio, eman zaizkien dirulaguntzenak. <p>Agiriok ez aurkezteak dirulaguntza jasotzeari uko egiten zaiola esan nahiko du. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutzeak dirulaguntza hau edo ondorengoak jasotzeko eskubide galera ekarriko du.</p> <p>Eskaera ondo bete gabe badago edo agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hutsunea betetzeko eta, epe honetan osatu ez bada, artxibatu egingo da besterik gabe.</p> <p>Aurreko urteetan eskaria egin izan duten erakunde edo taldeek datuetan aldaketarik izan badute, eskaria lehen aldiz egingo dutenei eskatutako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.</p> <p>Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo ditu datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik oinarri espezifiko</p>	<ul style="list-style-type: none">• Justificante expedido por entidad bancaria o caja de ahorros de que la persona solicitante ha abierto una cuenta corriente.• Curriculum vitae de la asociación: actividades realizadas hasta la fecha, objetivos, recursos humanos y materiales, etc. <p>b) Para todas aquellas personas que presenten una solicitud:</p> <ul style="list-style-type: none">• Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.• Breve informe de la persona solicitante en el que se recoja lo especificado en el punto séptimo de estas bases.• Plan anual de actividades: plazos y fechas en las que se llevarán a cabo, metodología, objetivos, grupos de población para los que se ha pensado, etc.• Presupuesto anual o del curso, especificando claramente los gastos e ingresos previstos.• Declaración jurada en la que se recojan las solicitudes o, en su caso, las subvenciones concedidas a otros comités, organismos, etc. <p>La no presentación de esta documentación supondrá la renuncia a la percepción de la subvención. Asimismo, la ocultación o falseamiento de datos dará lugar a la pérdida del derecho a la percepción de la presente o posteriores subvenciones.</p> <p>En el caso de que la solicitud no esté cumplimentada correctamente o falte algún documento, se concederá un plazo de 10 días para su subsanación y, si en este plazo no se hubiera completado, se archivará automáticamente.</p> <p>En el caso de que en años anteriores se hayan producido cambios en los datos de las entidades o grupos solicitantes, deberán aportar la documentación requerida a las primeras solicitudes.</p> <p>El Ayuntamiento de Azkoitia comprobará los requisitos siguientes, establecidos en las presentes bases específicas, mediante los servicios de la plataforma</p>
--	--



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>hauetan ezarritako ondorengo baldintzak. Eskatzaileek egiaztapen horren aurka egiteko aukera izango dute; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Datu-bitartekaritzako plataformaren bidez honako zerbitzuak eskatuko dira:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: — Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun datuen kontsulta eta egiaztapena.2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak: — Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.3. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra: — Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta. <p>Ofizioz, Azkoitiko udalak egiaztatuko du udalarekin eta bere erakunde autonomoekiko zerga betebeharrak egunean dituela.</p> <p>Udalak beharrezko deritzon informazio osagarria eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei, aurkeztutako egitasmoaren balorazioa egin ahal izateko.</p>	<p>de intermediación de datos o de otras administraciones. Las entidades o personas solicitantes podrán oponerse a tales comprobaciones, en cuyo caso deberán presentar la documentación correspondiente. Servicios disponibles a través de la plataforma de intermediación de datos:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Dirección General de la Policía: — Consulta y comprobación de los datos de identidad de cada persona solicitante de la ayuda.2. Diputación Foral de Gipuzkoa y haciendas forales: — Consulta de estar al día con las obligaciones fiscales.3. Tesorería General de la Seguridad Social: — Consulta de estar al día con las obligaciones en materia de Seguridad Social. <p>El Ayuntamiento de Azkoitia comprobará de oficio el estado de las obligaciones fiscales para con el Ayuntamiento y sus organismos autónomos.</p> <p>El Ayuntamiento podrá solicitar a las entidades o personas solicitantes la información complementaria que estime oportuna, con el fin de realizar la valoración del programa presentado.</p>
<p>6. Elkarteko edo gizabanako onuradunaren betebeharrak</p>	<p>6. Obligaciones de la entidad o persona beneficiaria.</p>
<ul style="list-style-type: none">• Dirulaguntza emateko arrazoia izan den jarduera edo jardunbidea gauzatu zein konpromisoa hartzea.• Jarduera gauzatu duela edo jardunbidea hartu duela eta dirulaguntza eskuratzeko baldintzak eta betebeharrak bete dituela egiaztatzea.• Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezko aseguru eta baimenak eta eskuratzeko eta haietan agindutakoa betetzea.• Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze lanak onartzea eta laguntza eskaintzea, eta era berean, kontrol organoek egin beharreko beste egiaztatze eta finantzen kontrolerako jardueretan ere laguntzea; aipatu	<ul style="list-style-type: none">• Llevar a cabo o comprometerse a hacer la actividad o práctica que fundamente la concesión de la subvención.• Acreditar que se ha llevado a cabo la actividad y que se han cumplido las condiciones y requisitos que determinen la concesión o disfrute de la subvención.• Obtener y cumplir los seguros y autorizaciones necesarios para llevar a cabo la actividad subvencionada.• Aceptar y ayudar al órgano concedente con las comprobaciones oportunas. Asimismo, colaborar en cuantas actuaciones de comprobación y control financiero correspondan a los órganos de control, facilitando cuanta información le sea requerida para



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>jarduerak egiteko eskatutako informazio guztia emango da.</p> <ul style="list-style-type: none">• Lagundutako proiektua laguntzeko beste edozein administrazio edo erakundetatik (publiko nahiz pribatua, nazio mailako nahiz nazioartekoa) jasotako dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.• Entitatearen edo jardueren idatzizko, ahozko, ikus-entzumenezko eta irudizko publizitatean agerraraztea Azkoitiko Udalaren laguntza jaso dela, Azkoitiko Udalaren logotipoa jarritz.	<p>llevar a cabo dichas actividades.</p> <ul style="list-style-type: none">• Comunicar al órgano concedente la obtención, en su caso, de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la ayuda del proyecto subvencionado, procedentes de cualesquiera administraciones o entes, públicos o privados, nacionales o internacionales.• Hacer constar en la publicidad escrita, oral, visual e imaginaria de la entidad o actividades la colaboración del Ayuntamiento de Azkoitia mediante la colocación del logotipo del Ayuntamiento de Azkoitia.
<p>7. Dirulaguntzak emateko irizpideak eta mugak</p>	<p>7. Criterios y límites para la concesión de subvenciones</p>
<p>Honako hauek izango dira kontuan dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko orduan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Jardueraren kalitatea, jarduera-kopurua, bazkide-kopurua, etab. 15 puntu arte.• Egitasmoaren onuradun kopurua. 10 puntu arte.• Urteroko egitarauaren ekarpena herriaren bizitza soziokulturalari eta jarduera instituzionalean parte hartzea sustatzeari begira. 20 puntu arte.• Kultur elkarteak edo kulturgileak bere esparruan erakutsi duen ibilbidea, jarraipena eta egonkortasuna. 10 puntu arte.• Aurkeztu den programazioa herritar guztiei irekitzea. 10 puntu arte.• Jarduera esparruan euskararen erabilera bermatzea eta sustatzea prentsa oharretan, ekitaldian, etab. 10 puntu arte.• Elkartearen diru-baliabideak eta eskatutako laguntzaren proportzioa elkartearen baliabideekiko. 10 puntu arte.• Emakume eta gizonezkoen partaidetza parekatua elkartean eta berau sustatzeko ahalegina antolatuko diren jardueretan. 10 puntu arte• Kultur jardueretatik elkarbizitza sustatzea eta indartzea. 5 puntua arte.	<p>Para determinar la cuantía de la subvención se tendrá en cuenta lo siguiente:</p> <ul style="list-style-type: none">• La calidad de la actividad, el número de actividades, el número de socios, etc. Hasta 15 puntos.• El número de beneficiarios del proyecto. Hasta 10 puntos.• La contribución del programa anual a la vida socio-cultural del pueblo y al fomento de la participación en la actividad institucional. Hasta 20 puntos.• La trayectoria, la continuidad y la estabilidad de la asociación o del agente cultural en su ámbito. Hasta 10 puntos.• La apertura de la programación presentada a toda la ciudadanía. Hasta 10 puntos.• La garantía y el fomento del uso del euskera en el ámbito de actuación en notas de prensa, eventos, etc. Hasta 10 puntos.• Los recursos económicos de la asociación y la proporción de la ayuda solicitada sobre los recursos de la asociación. Hasta 10 puntos.• La participación igualitaria de mujeres y hombres en la asociación y en las actividades que se vayan a organizar para su promoción. Hasta 10 puntos.• El fomento y el refuerzo de la convivencia desde las actividades culturales. Hasta 5 puntos



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>Eskabide bakoitzari zuzendutako dirulaguntza lortutako puntuazioaren proportzionala izango da. Nolanahi ere, elkarteren batek gain finantzaketa izango balu lortutako kopuruarekin, dirulaguntza murriztuko zaio hura ekiditeraino.</p> <p>Ekitaldiaren berezitasuna kontuan hartuta, balorazio-batzordeak erabaki dezake gastu mota batzuetarako Azkoitiko Udaleko Oinarri Orokorretan ezartzen diren gastu mugak handitzea.</p>	<p>La subvención destinada a cada solicitud será proporcional a la puntuación obtenida. En todo caso, si alguna asociación tuviera sobrefinanciación con la cantidad obtenida, se le reducirá la subvención hasta evitarla.</p> <p>Dada la singularidad del evento, la comisión de valoración puede decidir aumentar los límites de gasto que para algunos tipos de gastos se establecen en las Bases Generales del Ayuntamiento de Azkoitia.</p>
8. Ebaluazio-Batzordea	8. Comisión de evaluación
<p>Ebaluazio-batzordeak eskabideak aztertu, ebaluatu eta dirulaguntzak emateko proposamena egingo du, bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztuz.</p> <p>Ebaluazio-batzordeak honakoek osatuko dute:</p> <ul style="list-style-type: none">- Udal Idazkariak edo bere ordezkoko funtzionarioak.- Udal Kontu-hartzaileak edo bere ordezkoko funtzionarioak.- Udaleko Kultur Teknikariak edo bere ordezkoko funtzionarioak.	<p>La Comisión de Evaluación analizará y evaluará las solicitudes, y elaborará la propuesta de concesión de las subvenciones, con indicación de la cuantía de cada una de ellas.</p> <p>La Comisión de Evaluación estará compuesta por:</p> <ul style="list-style-type: none">-La Secretaría del Ayuntamiento o funcionario en quien delegue.- La Interventora del Ayuntamiento o funcionario en quien delegue.- El técnico de cultura del Ayuntamiento o funcionario en quien delegue.
9. Dirulaguntzen ordainketa	9. Abono de las subvenciones
<p>Dirulaguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo <u>hiru hilabeteren barruan</u> egingo da ordainketa.</p>	<p>El pago se hará <u>dentro de los tres meses</u> siguientes a la finalización del plazo de solicitud de la subvención.</p>
10. Dirulaguntzen zuriketa	10. Justificación de la subvención
<p>Ikasturteko dirulaguntza eskatzen dutenek 2026. urteko abenduaren 31a baino lehen aurkeztu beharko dute zuriketaren dokumentazioa. Urte naturaleko egitasmoaren dirulaguntza eskatzen dutenek, aldiz, 2027. urteko otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dute.</p>	<p>Las personas solicitantes de la subvención del curso deberán presentar la documentación de justificación antes del 31 de diciembre 2026. Las personas que soliciten subvención para el proyecto durante el año natural deberán presentarla antes del 28 de febrero del 2027.</p>
11. Araudia	11. Normativa
<p>Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako arauak aplikatuko dira: azaroaren 17ko dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); eta</p>	<p>Para todo aquello no establecido en esta convocatoria se estará a lo dispuesto en: la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre); el Reglamento que la desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (Boletín Oficial del Estado de 25 de julio); las Bases Generales del Ayuntamiento de Azkoitia</p>



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azkoitiko Udaleko dirulaguntzen Oinarri Orokorrak (GAO, 54 zk., 2023ko martxoaren 20a) eta Oinarri Espezifikokoak (GAO, 76 zk., 2026ko apirilaren 27an).	(BOG, nº 54 de 20 de marzo de 2023) y Bases Específicas (BOG, nº 76 de 27 de abril de 2025).
12. Errekurtsoak	12. Recursos
Deialdi honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez daiteke bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian eta Berraztertze Errekurtsoa deialdi honen ebazpenaren aurka hilabeteko epean. Epeak deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.	Contra la presente convocatoria cabe interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses y Recurso de Reposición contra la resolución de esta convocatoria en el plazo de un mes. El plazo comenzará al día siguiente a la publicación de esta convocatoria.

KULTURA DEPARTAMENTUA – Tel . 943 857170 / Fax. 943 852140 - kultu@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

EKS | CSV: ESKUbfda78b4-e76a-4eaa-9daa-797d74099202



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026PUNT0006-Iragarkia/Anuncio (AZKOITIKO UDALA)